

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4539

EBAZPENA, 2024ko irailaren 13koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez indarrik gabe uzten baita «Jarrarte» ENS, Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroan 102 zenbakiarekin inskribatua.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari esleitzen dizkion eskumenak betez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroa sortzen duen martxoaren 14ko 53/1983 Dekretuari lotuta.

Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak arautzen dituen abuztuaren 3ko 1776/1981 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (zehazki, 13. eta 14. artikuluetan), eta gainerako araudi aplikagarria kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroan argitaratzea «Jarrarte» izeneko ENS (102 zenbakikoa) indarrik gabe utzi dela 2024ko irailaren 13an (sozietatearen helbidea: Bastida, Araba), Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroko inskripzio-liburuaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 13a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
JORGE GARBISU BUESA.